Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2026ko azaroaren 9a, astelehena — 214 — Lunes, a 9 de noviembre de 2026

CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA

Deialdiaren oinarri arautzaileak, Fundación Cristóbal Balenciaga - Cristóbal Balenciaga Fundaziorako bilduma-teknikari bat aldi baterako kontratatzeko.

1. Deialdiaren helburua.

Deialdi honen xedea da bildumen teknikari bat (1) (Erref.: FCBF-026) hautatzea, Cristóbal Balenciaga Museoko Bildumen arloko arduradunaren ardurapean FCBFren bildumak zaindu, dokumentatu, kontserbatu eta hedatzearekin lotutako zereginak egiteko. Hauek dira, besteak beste: erregistroa eta inbentarioa, kontserbazio-egoerak, erakusketa- eta/edo kontserbazio-euskarriak egitea, kontserbazio prebentiboko baldintzak kontrolatzea biltegietan eta erakusketetan, obrak zaharberritzea, obrak muntatzea norberaren eta kanpoko erakusketetan, etab.

Deialdia publikoa eta irekia da, eta hautaketa-prozesua kudeatzeaz langile-hautaketako LKSNEXT enpresa (aurrerantzean, aholkularitza-enpresa) arduratuko da, kontuan hartuta dokumentu honetan jasotako baldintzak eta berdintasuneko, merezimenduko, gaitasuneko eta publizitateko printzipioak.

Kontratazioa lanaldi osokoa izango da, aldi baterako lan-kontratuaren modalitatean (lanpostu hutsa betetzeko bitartekoa), eta gehienez ere 3 urtekoa.

Dokumentuari atxikitako 1. eranskinean jaso dira esleitutako ordainsaria eta hautagaia kontratatzeko beste baldintza batzuk.

2. Prozesuan onartzeko baldintzak: betekizun orokorrak eta espezifikoak.

Hautagaia onartzeko eta, hala badagokio, hautaketa prozesuan sartzeko, betekizun baztertzaile hauek bete beharko ditu, hautagaitzak aurkezteko epea amaitzen den egunerako:

2.1. Betekizun orokorrak.

2.1.1. Nazionalitatea: Europar Batasuneko estatu bateko herritartasuna edukitzea, edo Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera langileen joan-etorri askea aplikatzen zaion estatu batekoa izatea. Era berean, aurreko paragrafoan sartzen ez diren atzerritarrek, Espainiako estatuan egoitza legala badute, parte hartu ahal izango dute. Plaza baterako hautatuek kontratuaren xede den jarduera egiteko administrazio-baimena eduki beharko dute, kontratua formalizatu baino lehen.

2.1.2. Hamasei urte beteta izatea eta, hala dagokionean, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adinetik gorakoa ez izatea, dagokion kontratua formalizatzeko egunean.

2.1.3. Titulazioak izatea edo horiek lortzeko eskubideak ordainduta izatea, eta behar bezala egiaztatzea 2.2 atalean eskatzen den hizkuntza-maila duela.

Euskara-mailari buruz: hautagaiak egiaztatu beharko du Europako esparruko B2 mailako ziurtagiria edo baliokidea duela

FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA

Bases reguladoras de la convocatoria para la contratación temporal de un técnico/a de colecciones, para Fundación Cristóbal Balenciaga - Cristóbal Balenciaga Fundazioa.

1. Objeto de la convocatoria.

Es objeto de la presente convocatoria es la selección de un/a (1) técnico de colecciones (Ref.: FCBF-026), que, en dependencia del responsable del área de Colecciones del Museo Cristóbal Balenciaga, realice labores relativas a la custodia, documentación, conservación y difusión de las colecciones de FCBF tales como: registro e inventario, estados de conservación, realización de soportes expositivos y/o de conservación, control de las condiciones de conservación preventiva en almacenes y exposiciones, restauración de obra, montaje de obra en exposiciones propias y externas, entre otras.

La convocatoria es pública y abierta, y el proceso de selección estará gestionado por LKSNEXT (en adelante la consultora), empresa de selección de personal, ateniéndose a los requisitos recogidos en este documento y a los principios de igualdad, mérito, capacidad y publicidad.

La contratación se realizará a jornada completa bajo la modalidad de contrato laboral temporal (contrato de sustitución para la cobertura temporal de vacante) por un máximo de 3 años de duración.

La retribución asignada, y otras condiciones de contratación del candidato/ha seleccionado/a se detallan en el anexo1.

2. Condiciones de admisión al proceso: requisitos generales y específicos.

Para ser admitido/a y, en su caso, tomar parte en el proceso de selección, se deberán reunir para la fecha en que finalice el plazo de presentación de candidaturas, los siguientes requisitos excluyentes:

2.1. Requisitos generales.

2.1.1. Nacionalidad: tener la nacionalidad de alguno de los estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún estado al que, en virtud de la aplicación de los Tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores. Asimismo, podrán tomar parte las personas extranjeras no incluidas en el párrafo anterior que tengan residencia legal en el estado español. Si resultaran seleccionadas, deberán poseer la autorización administrativa para realizar la actividad objeto del contrato con carácter previo a la formalización de éste.

2.1.2. Haber cumplido dieciséis años y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa a la fecha de formalización del contrato correspondiente.

2.1.3. Estar en posesión, o haber abonado los derechos para la obtención de las titulaciones requeridas en el apartado 2.2, y acreditar debidamente el nivel de idioma requerido en el apartado 2.2.

En relación con el nivel de euskera: se deberá acreditar estar en posesión de título acreditativo de nivel B2 del marco europeo

EK\CV GAO-I-2026-07234

edo, hala badagokio, apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzetik salbuesteko dena) ezarritako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko du.

2.1.4. Zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea: ez izatea dagozkion eginkizunak betetzearekin bateraezina den gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik.

2.1.5. Diziplinazko espedientearen bidez autonomia-erkidegoetako administrazio publikoetako edo organo konstituzionaletako edo organo estatutarioetako zerbitzutik banatuta ez egotea, eta banandu duten enplegu edo kargu publiko horretan zituen eginkizunen antzekoak betetzeko desgaikuntza absolutu edo berezia ez izatea.

Beste estatu bateko herritartasuna izanez gero, ezgaituta edo antzeko egoeran ez egotea eta bere estatuan lan publikoan sartzea eragozten dion diziplinazko zigorrik edo baliokiderik jaso ez izatea.

2.1.6. Ez egotea ezgaituta egiten diren eginkizunen antzekoak betetzeko, hutsegite oso larri baten ondorioz diziplinaz kaleratzeko zehapen batengatik.

2.2. Betekizun espezifikoak.

2.2.1. Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua, Arte Ederretako lizentziatura zaharberritze-lanetan espezializatuta, edo baliokidea.

2.2.2. Euskara: B2 mailako titulazio ofiziala edo baliokidea.

2.2.3. Beste ezagutza batzuk:

— XX. mendeko modaren historiari eta Cristobal Balenciagari buruzko ezagutzak.

— Ehungintzako museo bateko bildumen arloan egin beharreko lanei buruzko ezagutzak.

Hautagaiek baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean, eta prozesuaren amaierara arte mantendu, ezertan eragotzi gabe prozeduraren edozein fasetan betekizunak egiaztatzeko eskatzea eta, betetzen ez badituzte, hautaketa-prozesutik kanpo uztea.

3. Eskabideak onartzeko epea.

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabideak hautaketafcbf@lksnext.com helbide elektronikora bidaliko dira, Ref. FCBF-026 erreferentziarekin, onartzeko epearen barruan, zeina oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu den egunetik hogei egun naturalera amaituko baita, 23:59an.

Eskabidea aurkezteak esan nahi du hautagaiak deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak onartzen dituela.

Komunikazioren bat egin, agiriren bat aurkeztu edo kontsultaren bat egin nahi bada, edota hautaketa-prozesuan gorabeheraren bat gertatzen bada, hautagaiek helbide elektroniko honetara soilik jo beharko dute: hautaketafcbf@lksnext.com.

Hau izango da gutxienez bidali beharreko dokumentazioa:

— Curriculuma.

— NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia (baita lanerako baimena ere, hala badagokio).

— Eskatutako titulazioen ziurtagiriak (titulazio akademikoa eta espediente akademikoa, eta hizkuntza-mailaren titulazioa edo ziurtagiria, eskatzen denean).

— Curriculumean aurkeztutako titulazioen edo esperientziaren ziurtagiriak, 3. faseko merezimenduak egiaztatzeko.

o equivalente, o, en su caso, certificación para la aplicación de las exenciones previstas en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de la exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.

2.1.4. Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas: no padecer enfermedad ni estar afectado/a por limitación física o psíquica incompatible con el desempeño de las correspondientes funciones.

2.1.5. No haber sido separado/a, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas o de los órganos constitucionales o estatutarios de las Comunidades Autónomas, ni hallarse en inhabilitación absoluta o especial para ejercer funciones similares a las que desempeñaba en el empleo o cargo público del que hubiese sido separado/a o inhabilitado/a.

En el caso de ser nacional de otro Estado, no hallarse inhabilitado/a o en situación equivalente ni haber sido sancionado/a disciplinariamente o equivalente que impida, en su Estado, en los mismos términos, el acceso al empleo público.

2.1.6. No haber sido inhabilitado/a para el ejercicio de funciones similares a las que se desempeñaban, por una sanción de despido disciplinario de personal laboral por la comisión de una falta muy grave.

2.2. Requisitos específicos.

2.2.1. Grado en Conservación-Restauración de Bienes Culturales, o licenciatura en Bellas artes con especialización en Restauración, o equivalente.

2.2.2. Euskera: Titulación oficial de B2 o equivalente.

2.2.3. Otros conocimientos:

— Conocimientos de historia de la moda del siglo XX y sobre Cristóbal Balenciaga.

— Conocimientos sobre las labores a desarrollar en el área de colecciones de un museo textil.

Los/as aspirantes deberán reunir los requisitos en la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes y mantenerlos hasta el final del proceso, sin perjuicio de que en cualquier fase del procedimiento se les podrá solicitar su acreditación y, en caso de no cumplirlos, podrá procederse a su exclusión del proceso de selección.

3. Instancias, plazo de admisión.

Las instancias solicitando tomar parte en el proceso selectivo se dirigirán a la dirección de correo electrónico hautaketafcbf@lksnext.com indicando la referencia Ref. FCBF-026, dentro del plazo de admisión que finaliza a las 23:59 horas del veinteavo día natural a partir del día de la publicación de las presentes bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

La presentación de la solicitud supone la aceptación, por parte de la persona candidata, de las bases de la presente convocatoria.

Para cualquier comunicación, presentación documental, incidencia o consulta durante el proceso selectivo, las personas candidatas deben dirigirse únicamente al siguiente correo electrónico: hautaketafcbf@lksnext.com.

La documentación a enviar será mínimamente la siguiente:

— Currículum.

— Fotocopia del DNI, NIE o Pasaporte (junto con el permiso de trabajo, en su caso).

— Certificados de titulaciones requeridas (Titulación académica y expediente académico y titulación o certificado de nivel de idiomas cuando se requiera).

— Certificados de titulaciones o experiencia aportadas en el currículum y que acrediten los méritos objeto de la fase 3.

EK\CV GAO-I-2026-07234

Ildo horretan, eta esperientzia egiaztatze aldera, laneko bizitzaren txostena aurkeztuko da ziurtagiri gisa.

Besteren konturako langileek laneko esperientzia baloragarriaren ziurtagiri edo egiaztagiriak aurkeztuko dituzte, betiere administrazioko organoak, erakunde profesional korporatiboak eta/edo enpresak emandakoak. Horietan, besteak beste, alderdi hauek identifikatuko dira: esperientziaren hasiera- eta amaiera-datak, lanbide-kategoria, lanpostua eta eginkizun nagusiak.

Norberaren konturako langileek, bestalde, zerbitzu eman duten administrazio-organoak, erakunde profesional korporatiboak eta/edo enpresak emandako ziurtagiri edo egiaztagiria aurkeztuko dute, eta alderdi hauek identifikatuko dira horretan: emandako zerbitzuaren deskribapena, zerbitzuen hasiera- eta amaiera-datak, eta zerbitzu horiek ematean benetan egindako lanorduen kopurua.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, aztertu egingo dira, betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko, eta zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzeko izapidea abiaraziko da.

Kanpoko hautagaitzak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere 15 egun balioduneko epean, onartutako eta baztertutako hautagaitzen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira.

Zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzeko eskabideak 5 egun balioduneko epean aurkeztu ahalko dira, behin-behineko zerrendak argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Bost eguneko epe horren barruan, behin-behineko zerrendetatik kanpo geratu direnek aukera izango dute erreklamazioak aurkezteko. Zuzendu daitezkeen akatsen zuzenketak eta erreklamazioak onetsi edo ezetsiko dira, eta behin betiko zerrenda gehienez ere 5 egun balioduneko epean argitaratuko da, eskabideak aurkezteko epea amaitu denetik kontatzen hasita.

Zerrendetan hautagaien NANaren azken 6 digituak eta letra jasoko dira, eta ahoulkularitza- enpresaren webgunean argitaratuko dira.

Atzera botako dira osatu gabeko eskabideak, adierazitako epeetatik kanpo jasotakoak edo adierazitakoaz bestelako bideetatik jasotakoak. Oinarrietan (2.1 y 2.2 sailetan)eskatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten hautagaitzak ere atzera botako dira.

4. Epaimahai kalifikatzailea.

Kide hauek osatuko dute epaimahai kalifikatzailea:

— FCBFko Batzorde Betearazleko kide delegatua.

— FCBFko zuzendaria.

— FCBFko Bildumen zuzendaria.

Epaimahaiko kide guztiek ahotsa eta botoa izango dute.

Nolanahi ere, epaimahaiak egokitzat jotzen dituen aholkularitzak jaso ditzake, egokitzat jotzen dituen proba edo ariketetarako.

5. Hautaketa-prozesua.

Hautaketa-prozesuak hiru (3) fase izango ditu, eta horietako bakoitza gehienez 40 punturekin baloratuko da. Azken puntuazioa lortzeko, fase bakoitzak pisu hau izango du: 1. fasea, % 30; 2. fasea, % 50; 3. fasea, % 20 (ikus 6. atala).

* 1. fasea: Nahitaezkoa eta jendea baztertzekoa.

Fase honetan ematen den gehieneko puntuazioa = 40 puntu.

Hurrengo fasera igarotzeko behar den gutxieneko puntuazioa: 20 puntu.

Hautagaiei deialdi bakar bat egingo zaie, eta, bertaratu ezean, hautagaia hautaketatik kanpo geratuko da.

Elkarren segidako bi proba egingo dira:

1.A fasea: Proba hauetan ebaluatuko da ea izangaiak egokiak diren bete beharreko lanpostuaren zehaztapen tekniko-pro-

A este respecto, y para acreditar la experiencia, se presentará como certificado el Informe de vida laboral.

En el caso de trabajadores por cuenta ajena, se presentarán certificados o acreditaciones emitida por el órgano de la administración, entidad profesional corporativa y/o empresa de la experiencia laboral valorable en el que se identifique, entre otros, las fechas de inicio y fin de la misma, categoría profesional, puesto de trabajo y principales funciones desempeñadas en el mismo.

En el caso de trabajadores por cuenta propia, se presentará certificado o acreditación emitida por el órgano de la administración, entidad profesional corporativa y/o empresa para el que se hubieran prestado los servicios en el que se identifique: descripción del servicio prestado, las fechas de inicio y fin de los servicios prestados, y el número de horas efectivamente trabajadas en dicha prestación de servicios.

Expirado el plazo de presentación de solicitudes, se revisarán las mismas para comprobar el cumplimiento de los requisitos exigidos y se procederá al trámite de subsanación de defectos corregibles.

En el plazo máximo de 15 días hábiles desde el cierre del plazo de presentación de candidaturas externas, se publicarán los listados provisionales de candidaturas aceptadas y descartadas.

El plazo de presentación de instancias para la subsanación de defectos corregibles será de 5 días hábiles contados a partir del día siguiente de la publicación de los listados provisionales. Dentro de este mismo plazo de 5 días, las personas excluidas de los listados provisionales podrán presentar sus reclamaciones. Las subsanaciones de defectos corregibles y las reclamaciones serán estimadas o desestimadas, en su caso, publicándose el listado definitivo en el plazo máximo de 5 días hábiles desde el cierre del plazo de presentación de instancias.

Los listados contendrán los últimos 6 dígitos y letra del DNI de las personas y se publicarán en la página web de la consultora.

Serán excluidas las solicitudes incompletas, las recibidas fuera de los plazos indicados, o las recibidas por cualquier otra vía. Serán igualmente rechazadas aquellas candidaturas que no cumplan los requisitos exigidos en las bases (apartados 2.1 y 2.2).

4. Tribunal calificador.

El tribunal calificador estará formado por:

— Miembro delegado/a de la Comisión Ejecutiva de FCBF.

— Directora de FCBF.

— Director de Colecciones de FCBF.

Todos los/as miembros del Tribunal tendrán voz y voto,

En todo caso, el Tribunal podrá contar con los asesoramientos que estime pertinentes para aquellas pruebas o ejercicios en que así lo considere oportuno.

5. Proceso de selección.

El proceso de selección constará de tres (3) fases, cada una de ellas valorada sobre un máximo de 40 puntos. La puntuación final se obtendrá ponderando cada fase con el siguiente peso: Fase 1, 30 %; Fase 2, 50 %; Fase 3, 20 % (véase el apartado 6).

* Fase 1: De carácter obligatorio y eliminatorio.

Puntuación máxima a otorgar en esta fase = 40 puntos.

Puntuación mínima necesaria para pasar a la siguiente fase: 20 puntos.

Los/as aspirantes serán convocados en llamamiento único, quedando el/la aspirante excluido/a de la selección en caso de inasistencia.

Se realizarán dos pruebas sucesivas:

Fase 1-A: Pruebas de evaluación de la adecuación de los/as aspirantes en relación con las especificaciones técnico-profesio-

EK\CV GAO-I-2026-07234

fesionalei dagokienez, bai eta lanpostuaren profilari dagokionez ere (10 puntu, gehienez ere).

Hauek izango dira probak:

— Gaitasun-probak:Lanpostua behar bezala betetzearekin lotutako gaitasun intelektuala ebaluatzeko testak egingo dira (5 puntu, gehienez ere).

— Nortasun-probak: Nortasun-proba bat egingo da, hautagaia lanposturako egokia den zehazteko (5 puntu, gehienez ere).

1.B fasea: Gaitasunen inguruko elkarrizketa. Curriculumean oinarritutako elkarrizketa bat izango da, ebaluatzeko ea hautagaia egokia den eskatutako profilerako (30 puntu, gehienez ere).

Hautagaien profil psikologiko eta profesionala ebaluatuko da; horretarako, aztertuko da ea haien portaera-gaitasunak, trebetasunak eta nortasun-ezaugarriak bat datozen lanpostuaren eskakizun teknikoekin eta lan-ingurunearekin.

Aholkularitza-enpresak gauzatuko du 1. fasea.

Gutxienez 1. faseari dagozkion puntuen erdiak lortu dituzten hautagaiak igaroko dira 2. fasera (20 puntu lortu dituztenak). Baldin eta 1. fasea 10 hautagaik baino gehiagok gainditzen badute, puntuazio handiena lortu duten lehenengo 10 hautagaiak soilik igaroko dira 2. fasera. Hamargarren postuan berdinketarik egonez gero, 2. fasera pasatuko dira berdinduta dauden pertsona guztiak.

Lortutako behin-behineko emaitzak aholkularitza-enpresaren webgunean argitaratuko dira, eta erreklamazioak aurkezteko 3 egun balioduneko epea emango da, emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ez bada erreklamaziorik aurkezten edo, hala badagokio, horiek aurkeztu ondoren, behin betiko emaitzak argitaratuko dira.

* 2. fasea: Nahitaezkoa eta baztertzekoa.

Fase honetan ematen den gehieneko puntuazioa = 40 puntu.

Hurrengo fasera igarotzeko behar den gutxieneko puntuazioa: 20 puntu.

Hautagaiei deialdi bakar bat egingo zaie, eta, bertaratu ezean, hautagaia hautaketatik kanpo geratuko da.

Elkarren segidako bi proba egingo dira:

2.A fasea: Proba praktikoa, lanpostuaren eginkizunekin lotua (20 puntu, gehienez ere).

Praktikoa izango da, eta barne hartuko du lanpostuaren zereginekin lotutako eta epaimahaiak proposatutako kasu praktiko bat aztertu, idatzi eta, ondoren, horri buruzko ondorioak aurkeztea. Probaren helburua izango da bildumako obra baten kontserbazio-egoera bat egitea, eta haren inguruan 1) tratamendu prebentibo bat eta 2) tratamendu zuzentzaile bat gomendatzea. Iraupena: 60 minutu.

2.B fasea: Elkarrizketa pertsonala. aholkularitza-enpresak dinamizatuko du eta Epaimahai Kalifikatzailea bertan egongo da; elkarrizketan, hautagaiak erakundera eta lanpostura egokitzen diren ebaluatuko da. Iraupena: 30 minutu (20 puntu, gehienez ere).

Proba egiteko eguna eta lekua aholkularitza-empresaren webgunean jakinaraziko dira, hura egin baino gutxienez 5 egun natural lehenago.

Hautagaiek NANa edo, atzerritarra izanez gero, dagokion dokumentu baliokidea eramango dute probara. Identifikazio hori ezinbestekoa izango da ariketa onartzeko.

nales del puesto a cubrir, así como la adecuación personal del candidato o de la candidata al perfil del puesto. (valorable hasta un máximo de 10 puntos).

Las pruebas serán las siguientes:

— Pruebas de aptitud: Consistirán en la realización de tests dirigidos a evaluar la capacidad intelectivo-aptitudinal en relación al correcto desempeño de las funciones del puesto. 5 puntos como máximo.

— Pruebas de personalidad: Consistirán en la realización de una prueba de personalidad, encaminada a determinar la adecuación personal del aspirante al puesto. 5 puntos como máximo.

Fase 1-B: Entrevista competencial: consistirá en una entrevista de carácter curricular orientada a evaluar el grado de adecuación de la candidatura al perfil requerido. (valorable hasta un máximo de 30 puntos).

Se valorará el perfil psico-profesional de los aspirantes, analizando si sus competencias conductuales, aptitudes y rasgos de personalidad se alinean con los requerimientos técnicos y el entorno de trabajo del puesto.

La fase 1 será llevada a cabo por la consultora.

Pasarán a la fase 2 las candidaturas que hayan obtenido al menos la mitad de los puntos correspondientes a la fase 1 (20 puntos). En el caso de que el número de aspirantes que superen la fase 1 sea superior a 10 personas, únicamente pasarán a la fase 2 las 10 primeras de mayor puntuación. En caso de empate en la décima posición, pasarán a la fase 2 todas las personas empatadas.

Se publicarán los resultados provisionales obtenidos en la página web de la consultora y se concederá un plazo de 3 días hábiles, a partir del día siguiente de la fecha de publicación, para presentar reclamaciones.

Si éstas no se presentaran o, tras resolverlas, en su caso, se harán públicos los resultados definitivos.

* Fase 2: De carácter obligatorio y eliminatorio.

Puntuación máxima a otorgar en esta fase = 40 puntos.

Puntuación mínima necesaria para pasar a la siguiente fase: 20 puntos.

Los/as aspirantes serán convocados en llamamiento único, quedando el/la aspirante excluido/a de la selección en caso de inasistencia.

Se realizarán dos pruebas sucesivas:

Fase 2-A: Prueba práctica, relacionada con las funciones del puesto (máximo 20 puntos).

De carácter práctico consistirá en análisis, redacción y posterior presentación de conclusiones de un supuesto práctico, relacionado con las tareas del puesto y propuesto por el Tribunal que consistirá en la realización de un estado de conservación de una obra de la colección y una recomendación de tratamiento 1) preventivo 2) correctivo sobre lal misma. Duración: 60 minutos.

Fase 2-B: Entrevista personal: dinamizada por la consultora y en presencia del Tribunal Calificador, en la entrevista se evaluará la adaptabilidad a la organización y al puesto de las personas candidatas. Duración: 30 minutos (valorable hasta un máximo de 20 puntos).

La fecha y lugar de realización se comunicarán por medio de la página web de la consultora, con una antelación mínima de 5 días naturales anteriores a su celebración.

Los/as aspirantes acudirán a la prueba provistos de DNI o documento equivalente en el caso de las personas extranjeras. Esta identificación será imprescindible para ser admitido/a al ejercicio.

EK\CV GAO-I-2026-07234

Fase honetako behin-behineko emaitzak aholkularitza-empresaren webgunean argitaratuko dira, eta erreklamazioa aurkezteko 3 egun balioduneko epea emango da, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ez bada erreklamaziorik aurkezten edo, hala badagokio, horiek aurkeztu ondoren, behin betiko emaitzak argitaratuko dira.

* 3. fasea: Hautagaiek eskabidean adierazi eta egiaztatutako merezimenduen azterketa eta balorazioa.

Fase honetan ematen den gehieneko puntuazioa = 40 puntu.

Helburua izango da hautagaiek 3. atalean aipatu deen eskabideak aurkezteko epearen barruan adierazi eta behar bezala egiaztatu dituzten merezimenduak ebaluatzea, kontuan hartuta deialdiaren iragarkia argitaratu den egunera arte lortutako merezimenduak soilik baloratuko direla.

Fase honetan, aholkularitza-enpresak baremo hau aplikatuko du:

3.A) Lanpostuari dagozkion eginkizunetan duen laneko esperientzia (besteren kontura edo norberaren kontura), behar bezala egiaztatua: 3 puntu museo-erakunde batean lan egindako urte bakoitzeko, edo 2 puntu, beste kasuren bat bada, (urtebetetik beherako aldiak proportzionalki zenbatuko dira hilabete osoka) eta gehienez ere 20,00 puntu.

3.B) Prebentziozko kontserbazioarekin eta/edo ehunen zaharberritzearekin lotutako prestakuntza espezifikoa, gehienez ere 10,00 puntu, honen arabera:

— 101 eta 200 ordu arteko ikastaroak: 0,50 puntu ikastaroko.

— 201 eta 300 ordu arteko ikastaroak: puntu 1 ikastaroko.

— 300 ordutik gorako ikastaroak: 1,50 puntu ikastaroko.

Ez dira baloratuko eskatutako titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa-plan baten barruko ikastaroak.

3.C) Gauzatutako proiektuak: lanpostuaren eginkizunekin lotuta egin diren proiektuak baloratuko dira, behar bezala ziurtatuta badaude:

— 0,10 puntu erakusketak muntatzeko eta/edo manikiak egiteko zereginekin lotutako proiektu zehatz bakoitzeko, gehienez ere 5 puntu.

3.D) Hizkuntzak. Gehienez ere 3 puntu:

— 0,50 puntu B2 mailatik gorako euskararen ezagutza egiaztatzeagatik (C1 edo goragokoa).

— 0,50 puntu Europako beste hizkuntza batzuen ezagutza egiaztatzeagatik, B2 edo goragoko mailakoa.

3.E) Joskintzako eta/edo patroigintzako teknikei buruzko prestakuntza espezifikoa, gehienez ere 2 puntu:

— 50 eta 100 ordu arteko ikastaroak: 0,25 puntu ikastaroko.

— 101 eta 300 ordu arteko ikastaroak: 0,50 puntu ikastaroko.

Fase honetan lortutako behin-behineko emaitzak aholkularitza-enpresaren webgunean argitaratuko dira, eta erreklamazioak aurkezteko 5 egun balioduneko epea emango da, emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ez bada erreklamaziorik aurkezten edo, hala badagokio, horiek aurkeztu ondoren, behin betiko emaitzak argitaratuko dira.

6. Hautaketa-prozesuaren kalifikazioa eta lan-poltsa.

Hautaketa-prozesuan hautagaiak sailkatzeko ordena erabakitzeko, fase bakoitzean lortutako puntuak batuko dira, fase bakoitzak azken puntuaziorako duen pisu erlatiboaren arabera haztatuta.

Azken lehentasunaren hurrenkera zehazten duen puntuazioa lortzeko, formula hau aplikatuko da:

Se publicarán los resultados provisionales de esta fase en la página web de la consultora. y se concederá un plazo de 3 días hábiles, a partir del día siguiente de la fecha de publicación, a para presentar reclamaciones.

Si éstas no se presentaran o, tras resolverlas, en su caso, se harán públicos los resultados definitivos.

* Fase 3: Examen y valoración de los méritos alegados y acreditados por las y los aspirantes en la instancia.

Puntuación máxima a otorgar en esta fase = 40 puntos.

Consistirá en la valoración de los méritos alegados y debidamente acreditados por los/las aspirantes dentro del plazo de presentación de instancias al que se hace referencia en el apartado 3, teniendo presente que únicamente se valorarán los méritos hasta la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

En esta fase la empresa consultora realizará la aplicación del siguiente baremo:

3.A) Experiencia laboral (por cuenta ajena o por cuenta propia) debidamente acreditada en funciones propias del puesto de trabajo, a razón de 3 puntos por cada año trabajado si es en una entidad museística o 2 puntos por año en otro caso (los periodos inferiores al año se computarán proporcionalmente por meses completos) y hasta un máximo de 20,00 puntos.

3.B) Formación específica relacionada con la conservación preventiva y/o restauración textil, hasta un máximo de 10,00 puntos, conforme a lo siguiente:

— Cursos entre 101 y 200 horas: 0,50 puntos / curso.

— Cursos entre 201 y 300 horas: 1 punto / curso.

— Cursos de más de 300 horas: 1,50 puntos / curso.

No serán objeto de valoración los cursos que formen parte de un plan de estudios para la obtención de una titulación académica exigida.

3.C) Proyectos ejecutados: se valorarán los proyectos ejecutados, debidamente certificados, que tengan relación con las funciones del puesto:

— 0,10 puntos por proyecto concreto en tareas de montaje de exposiciones, y/o realización de maniquíes, hasta un máximo de 5 puntos.

3.D) Idiomas. Hasta un máximo de 3 puntos:

— 0,50 puntos por la acreditación del conocimiento de euskera superior a B2 (C1 o superior).

— 0,50 puntos por la acreditación del conocimiento de otras lenguas europeas, con un nivel B2 o superior.

3.E) Formación específica en técnicas de costura y/o patronaje hasta un máximo de 2 puntos:

— Cursos entre 50 y 100 horas: 0,25 puntos / curso.

— Cursos entre 101 y 300 horas: 0,50 punto / curso.

Se publicarán los resultados provisionales de esta fase en la página web de la consultora y se concederá un plazo de 5 días hábiles, a partir del día siguiente de la fecha de publicación, a para presentar reclamaciones.

Si éstas no se presentaran o, tras resolverlas, en su caso, se harán públicos los resultados definitivos.

6. Calificación del proceso selectivo y bolsa de empleo.

El orden de clasificación del proceso de selección de los aspirantes vendrá determinado por la suma de los puntos obtenidos en cada fase, ponderados por el peso relativo de cada fase para la puntuación final.

Para obtener la puntación que determina el orden de prelación final se aplicará la siguiente fórmula:

EK\CV GAO-I-2026-07234

Azken puntuazioa = (1. faseko puntuazioa × 0,30) + (2. faseko puntuazioa × 0,50) + (3. faseko puntuazioa × 0,20), gehienez 40 punturen gainean.

Behin-behineko emaitzak aholkularitza-enpresaren webgunean argitaratuko dira, eta erreklamazioak aurkezteko 3 egun balioduneko epea emango da, emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Ez bada erreklamaziorik aurkezten edo, hala badagokio, horiek aurkeztu ondoren, behin betiko emaitzak argitaratuko dira, onartuen zerrenda batean, puntuazio-ordenari jarraikiz (FCBFren eta aholkularitza-enpresaren webguneetan).

Berdinketarik egonez gero, 2. fasean puntuaziorik handiena duen pertsonaren alde ebatziko da; jarraitzen badu, 1. fasean puntuaziorik handiena duenaren alde, eta, azkenik, 3. fasean.

Epaimahai kalifikatzaileak deialdiaren xede den plazarako puntuaziorik hoberena lortu duen hautagaia kontratatzeko proposatuko dio FCBFko Patronatuko buruari, eta gainerako hautagaiak aldi baterako kontratazioetarako lan-poltsa batean sartuko dira.

Hautagai bakoitzaren puntuazio-ordenak zehaztuko du lan-poltsa horren ordena. Poltsaren indarraldia 3 urtekoa izango da, argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Nolanahi ere, onartutakoen behin betiko zerrenda argitaratu eta lanean hastea formalizatu aurretik, jatorrizko dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango da, hautaketa-prozesuan aurkeztutako dokumentazioarekin erkatzeko.

Baldin eta proposatutako hautagairen batek ez badu eskatutako dokumentazioa aurkezten, FCBFk eskubidea izango du egokitzat jotako hurrengo hautagaia kontratatzeko, prozeduraren amaierako puntuazioaren ordenari jarraikiz.

7. Lanean hastea.

Hautatutako pertsona hautatua izan dela jakinarazi dioten egunetik gehienez ere 30 egunera hasiko da lanean FCBF erakundean, eta haren araudiak beteko ditu.

Erabaki da lanpostu horretarako probaldia 3 hilabetekoa izango dela, eta FCBFk egin beharko du lanean hasteko prozesuaren jarraipena.

8. Hautagaiekiko komunikazioa.

Hautaketa-prozesua egin bitartean hautagaiekin harremanetan jartzeko, hautaketafcbf@lksnext.com helbide elektronikoa erabiliko da banakako komunikazioetarako, eta aholkularitza-enpresaren webgunea, aurreko puntuetan ezarritako kasuetarako.

9. Datuen babesa.

Izangaiek beren eskabideetan emandako datu pertsonalak eta, oinarri hauetan araututako prozesuan zehar, FCBFri ematen dizkiotenak tratamendu-arduradun gisa tratatuko ditu erakunde horrek, hautaketa-prozesuan duten parte-hartzea kudeatzeko eta, hala badagokio, oinarri hauen xede den lan-poltsan sartzeko.

Datu pertsonalen tratamendua, hautaketa-prozesuan duten parte-hartzea kudeatzeko helburuarekin, izangaiak kontratu aurreko neurriak hartzeko egindako eskaeran oinarrituta egiten da (enplegu-eskaera).

Era berean, hautagai-zerrenda aurkeztean, izangaiak baimena ematen du, horretarako hautatua izanez gero, oinarri hauen xede den lan-poltsan sartzeko. Halaber, baimena ematen du bere datu pertsonalak baimen horretan oinarrituta tratatzeko.

FCBFk hautagaien datu pertsonalak gordeko ditu hautaketa-prozesua behar bezala gauzatzeko eta, hala badagokio, hautatutako izangaiak lan-poltsan sartzea eta egotea kudeatzeko

Puntuación final = (puntuación fase 1 × 0,30) + (puntuación fase 2 × 0,50) + (puntuación fase 3 × 0,20), sobre un máximo de 40 puntos.

Se publicarán los resultados provisionales en la página web de la consultora y se concederá un plazo de 3 días hábiles, a partir del día siguiente de la fecha de publicación, a para presentar reclamaciones.

Si éstas no se presentaran o, tras resolverlas, en su caso, se harán públicos los resultados definitivos en forma de relación de aprobados/as, por el orden de puntuación, tanto en la página web de la consultora como en la de la FCBF.

En caso de empate, este se resolverá a favor de la persona con mayor puntuación en la fase 2; si persiste, a favor de la de mayor puntuación en la fase 1 y, en último término, en la fase 3.

El tribunal calificador propondrá al Presidente/a del Patronato FCBF la contratación del/a aspirante que haya obtenido mejor puntuación para la plaza objeto de la convocatoria, quedando los/las restantes integrados/as en una «Bolsa de trabajo» para contrataciones de carácter temporal.

El orden de puntuación de cada aspirante determinará el orden de llamamiento a la misma. La vigencia de la bolsa será de 3 años desde la fecha de publicación de la misma.

En todo caso, de forma previa a la publicación de listados definitivo de aprobados y formalización de la incorporación, se podrá solicitar la presentación de documentos originales para su cotejo con la documentación aportada durante el proceso de selección.

En el supuesto de que alguna de las personas candidatas propuestas no presentase la documentación requerida, FCBF podrá contratar a la siguiente persona candidata declarada apta siguiendo el orden de puntuación final del procedimiento.

7. Incorporación.

La persona aspirante que resultara seleccionada se incorporará a la entidad FCBF, como muy tarde 30 días naturales después de comunicársele que ha sido seleccionado/a y se regirá por la normativa de la misma.

Se establece que el periodo de prueba para este puesto sea de 3 meses, siendo FCBF quien deberá realizar el seguimiento del proceso de incorporación.

8. Comunicación con aspirantes.

La comunicación con los/as aspirantes que corresponda realizar durante el desarrollo del proceso selectivo se llevará a cabo a través del correo electrónico hautaketafcbf@lksnext.com en caso de comunicación individual y a través de la página web de la consultora en los casos previstos en los puntos anteriores.

9. Protección de datos.

Los datos personales facilitados por las personas aspirantes en sus respectivas solicitudes y aquellos otros que, durante el proceso regulado en las presentes bases, faciliten a FCBF, serán tratados por dicha entidad como Responsable del Tratamiento, con las finalidades de gestionar su participación en el proceso de selección y, en su caso, su incorporación a la Bolsa de Trabajo objeto de las presentes bases.

El tratamiento de los datos personales con la finalidad de gestionar su participación en el proceso de selección se realiza sobre la base de la solicitud de adopción de medidas precontractuales por parte de la persona aspirante (solicitud de empleo).

Asimismo, al presentar su candidatura, la persona aspirante consiente que, en caso de resultar seleccionada a tal fin, sea incorporada a la Bolsa de Trabajo objeto de las presentes bases, autorizando igualmente el correspondiente tratamiento de sus datos personales sobre la base de dicho consentimiento.

FCBF conservará los datos personales de las personas aspirantes durante el tiempo estrictamente necesario para la adecuada ejecución del proceso de selección y, en su caso, para gestio-

EK\CV GAO-I-2026-07234

behar-beharrezkoa den denboran, bai eta, beharrezkoa denean, erakundeak legezko betebeharrak betetzeko bete behar dituen kontserbazio-epe gehigarrietan ere.

Deialdi honen xede den hautaketa-prozesua publizitate-printzipioaren mende dago, eta, beraz, hirugarren eta seigarren oinarrietan adierazitako bitartekoan argitaratuko dira onartutako eta baztertutako pertsonen zerrendak, bai eta parte-hartzaileek lortutako puntuazioak eta azken emaitzak ere. Nortasuna seigarren oinarriaren arabera esleitutako identifikazio pertsonaleko kodearen bidez jasoko da.

Oinarri hauetan berariaz aurreikusitako argitalpenez gain, eta legez eska daitekeen kasuetan izan ezik, hautagaien datu pertsonalak ez zaizkio hirugarren inori jakinaraziko. Halaber, ez da aurreikusten datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egitea.

Izangaiek eskubidea izango dute (i) beren datuen tratamendurako baimena ezeztatzeko eta beren datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, bai eta datu horiek zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, haien eramangarritasunerako edo tratamenduari aurka egiteko ere, hala badagokio, rgpd@fbalenciaga.com posta elektronikoko helbidearen bidez bidalitako idatzizko eskaera baten bidez; eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentzian, bereziki beren eskubideak egikaritzean bete ez dituztenean.

1. ERANSKINA

KONTRATUAREN BALDINTZAK

* Bildumen teknikaria - Erref.: FCBF-026.

— Lanpostuaren eginkizunen deskribapena: Bildumen arloko arduradunaren mende FCBFren bildumak zaindu, dokumentatu, kontserbatu eta hedatzearekin lotutako zereginak egin beharko ditu. Hauek dira, besteak beste: erregistroa, kontserbazio-egoerak, erakusketa- eta/edo kontserbazio-euskarriak egitea, kontserbazio prebentiboko baldintzak kontrolatzea biltegietan eta erakusketetan, obrak zaharberritzea, obrak muntatzea norberaren eta kanpoko erakusketetan, etab.

— Kontratu-mota: Kontratazioa lanaldi osokoa izango da, aldi baterako lan-kontratuaren modalitatean (lanpostu hutsa betetzeko bitartekoa), eta gehienez ere 3 urtekoa.

— Lantokia: Lantokia Cristóbal Balenciaga Museoa izango da (Aldamar parkea 6, 20808, Getaria, Gipuzkoa); nolanahi ere, gerta daiteke hornitzaileen egoitzetara edo beste erakunde batzuetara joan behar izatea, zerbitzuaren xedearekin lotuta.

— Kategoria: Lanpostuari dagokion kategoria teknikariarena da, FCBFko kategorien eta lanpostuen gaur egungo sailkapenaren arabera.

— Ordainsaria: Kategoria horri urteko 34.460 euroko soldata gordina dagokio, 14 ordainsaritan banatuta (zenbatekoa 2026koa da, eta FCBFko gainerako plantillari dagozkion eguneratzeak aplikatuko zaizkio).

— Lanaldia: Lanaldi osoa. Erreferentziazko hitzarmena: Gipuzkoako bulego eta despatxoen Hitzarmen Kolektiboa.

Getaria, 2026ko urriaren 29a.—Zuzendari orokorra.

(7234)

nar la incorporación y permanencia de las personas aspirantes seleccionadas en la Bolsa de Trabajo, así como, cuando fuese necesario, por los plazos adicionales de conservación que la entidad deba observar para el cumplimiento de sus obligaciones legales.

El proceso selectivo objeto de la presente convocatoria está regido por el principio de publicidad, por lo que se publicará en el medio señalado en las bases tercera y sexta, las relaciones de personas admitidas y excluidas, así como las puntaciones obtenidas por las personas participantes y resultados finales, consignándose la identidad mediante el código de identificación personal asignado de conformidad con la base sexta.

Al margen de las publicaciones expresamente previstas en las presentes bases y salvo en aquellos supuestos en los que resulte legalmente exigible, los datos personales de las personas candidatas no serán comunicados a ningún tercero. Tampoco está prevista la realización de transferencias internacionales de datos personales.

Las personas aspirantes tendrán derecho a (i) revocar su consentimiento al tratamiento de sus datos y solicitar el acceso a sus datos personales, así como a su rectificación, supresión, limitación de su tratamiento, a la portabilidad de los mismos o a oponerse a su tratamiento, cuando proceda, mediante solicitud escrita dirigida a través de la dirección de correo electróncio rgpd@fbalenciaga.com; y (ii) presentar una reclamación ante la Agencia Española de Protección de Datos, especialmente cuando no hubieran obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.

ANEXO 1

CONDICIONES DE CONTRATO

* Técnico/a de Colecciones - Ref. FCBF-026.

— Descripción de funciones del puesto: En dependencia del responsable del área de Colecciones deberá realizar labores relativas a la custodia, documentación, conservación y difusión de las colecciones de FCBF tales como: registro e inventario, estados de conservación, realización de soportes expositivos y/o de conservación, control de las condiciones de conservación preventiva en almacenes y exposiciones, restauración de obra, montaje de obra en exposiciones propias y externas, entre otras.

— Tipo de contrato: La contratación se realizará a jornada completa, bajo la modalidad de contrato laboral temporal (contrato de sustitución para la cobertura temporal de vacante) por un máximo de 3 años de duración.

— Centro de trabajo: El centro de trabajo es el Museo Cristóbal Balenciaga situado en parque Aldamar 6, 20808 de Getaria (Gipuzkoa) si bien se podrán producir desplazamientos a ubicaciones de proveedores u otras organizaciones relacionadas con el objeto del servicio.

— Categoría: La categoría correspondiente al puesto es de Técnico/a según la clasificación actual de categorías y puestos de FCBF.

— Retribución: El salario bruto anual correspondiente a esta categoría es de 34.460 euros, distribuidos en 14 pagas (importe a 2026, al que se aplicarán las actualizaciones que procedan para el resto de la plantilla de FCBF).

— Jornada: Jornada completa. Convenio de referencia: Oficinas y Despachos de Gipuzkoa.

Getaria, a 29 de octubre de 2026.—La directora general.

(7234)

EK\CV GAO-I-2026-07234